# Beste Iragarki Ofizial Batzuk

### BILBOKO UDALA

IRAGARKIA, 527, 531, 533 eta 537 banaketa-eremuetan, Bilboko Hiri Antolaketarako Egitamu Orokorraren aldatzeari eta Zamakola-Abusun Komunikazioen Sistema Orokorra aldatzeari buruzkoa. 9107

IRAGARKIA, Udalaren zerbitzuko langileen 2001 ekitaldiko ordainsariei buruzkoa. 9108

### ZALLAKO UDALA

IRAGARKIA, B-2 Los Paulinos Sektoreko Urbanizazio Proiektua behin betiko onartzeari buruzkoa. 9109

### GOBERNUAREN ORDEZKARITZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

IRAGARKIA, osagarrizko garraio pribaturako eskarian atzera egin dela deklaratzeko dena. 9110

# Otros Anuncios Oficiales

### AYUNTAMIENTO DE BILBAO

ANUNCIO de la Modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Bilbao en las Áreas de Reparto 527, 531, 533, 537 y del Sistema General de Comunicaciones en Zamakola-La Peña. 9107

ANUNCIO relativo a la aprobación de las retribuciones del personal al servicio de la Corporación para el Ejercicio 2001. 9108

### AYUNTAMIENTO DE ZALLA

ANUNCIO relativo a la aprobación definitiva del Proyecto de Urbanización del Sector B-2 «Paulinos». 9109

### DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

ANUNCIO por el que se declara el desistimiento de la solicitud de transporte privado complementario. 9110

# Xedapen Orokorrak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-2350

72/2001 DEKRETUA, apirilaren 24koa, gizarte–bermeko programetan jasotako prestakuntza–ekintzen funtsezko alderdiak ezartzeko dena.

(LOGSE) Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 23. artikuluan ezartzen denez, hezkuntza–administrazioek gizarte–bermeko behar adina berariazko programa eskainiko dituzte, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburuak iristen ez dituzten ikasleei oinarrizko lanbide–heziketa ematearren eta, horren bidez, ikasketetan jarraitzeko edo lan–munduan sartzeko bidea erraztearren.

# Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-2350

DECRETO 72/2001, de 24 de abril, por el que se establecen los aspectos esenciales de las acciones formativas que se integran en los Programas de Garantía Social.

La Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre , de Ordenación General del Sistema Educativo (LOGSE) establece en su artículo 23 que las Administraciones educativas garantizarán una oferta suficiente de programas específicos de garantía social, con el fin de proporcionar una formación básica y profesional a aquellos alumnos y alumnas que no alcancen los objetivos de la Educación Secundaria Obligatoria, facilitándoles así su incorporación a la vida activa o proseguir sus estudios.

Programa hauek pedagogia eta antolamenduko neurrien barruan sar daitezke, beti ere, ikasleen interesak, beharrizanak eta gaitasunak hobeto betetze aldera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen ekainaren 21eko 213/1994 Dekretuan etapa horretako ikasle–mota guztientzako neurriak jasotzen dira. Horien bidez, hezkuntzaren eskaintza ikasleen beharrizanetara egokitu nahi da. Beharrizan horiek, besteak beste, haueexek dira: aukerako arloak edo gaiak, curriculum malguaren proposamena, hezkuntzaren indargarriak, banako curriculum–egokitzapenak, etapan denbora gehiago emateko aukera, eta azkenik, curriculum desberdinak eratzeko programak egitea.

Hala eta guztiz ere, hezkuntza indartzeko neurri horiek eta guzti, litekeena da zenbait ikaslek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburuak ez iristea; horregatik, beharrezkoa da lanbide–arloko prestakuntzaren bat prest izatea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gainditu ez duten gazteak lan–munduko esparru jakinen batera bideratzearren, edo hezkuntza–sistemara itzultzen erraztearren.

Izan ere, hezkuntza gero eta hobea izateko eskubidea arian–arian hedatzea izango da oinarrizko baliabidea aukera–berdintasunaren alde ekiteko, zeren eta gazte horiei berariazko erantzuna eman behar zaie, heldutasunera lehenbailehen irits daitezen, beren kabuz ibiltzen ikas dezaten, eta oinarrizko ikasketak burutu ditzaten.

Gazte–talde horren egoera eta ezaugarriak nahikoa arrazoia da gizarte–bermeko programak abian jartzeko, honako bi helmuga hauei begira: lanbiderako oinarrizko prestakuntza eskaintzea eta beren berariazko beharrizanak betetzea, kasuan kasuko gizarte–, kultura– eta lan–inguruneak kontuan harturik.

Zehazkiago, gizarte–partehartzerako jarrera positiboak garatzen eta finkatzen ahalegin berezia egin behar da, baita ikasteko motibazioa berreskuratzen ere. Programak lan–esparruetan garatzea komeni da, gizarte–eragileekiko lankidetzan, eta lanbideratze–planekin bat, eta azkenik, prestakuntza–gaiak modu malguan bildu behar dira, talde bakoitzaren ezaugarriei doi–doi egokitzeko.

Gure autonomia–erkidegoan titulaziorik, ez akademikorik, ez lanbide–arlokorik, ez duten gazteak langabezian daude hein handi batean, ez baitute prestakuntza nahikorik langile kualifikatu gisa lanean hasteko, ezta berriro hezkuntza–sisteman txertatzeko ere.

Estos programas se enmarcan en el contexto más amplio de las distintas medidas pedagógicas y organizativas que, como acciones previas, contribuyen a dar una mejor respuesta a la diversidad de intereses, necesidades y aptitudes del alumnado.

Así, el Decreto 213/1994, de 21 de junio, por el que se establece el currículo de la Educación Secundaria Obligatoria para la Comunidad Autónoma del País Vasco, contempla distintas medidas de atención a la diversidad del alumnado de esta etapa, con el fin de adecuar la respuesta educativa a sus necesidades, como son la optatividad en las áreas o materias, la propuesta de un currículo flexible, el refuerzo educativo, la realización de adaptaciones curriculares individualizadas, la posibilidad de permanecer más tiempo en la etapa y, finalmente, la realización de programas de diversificación curricular.

No obstante, y a pesar de estas medidas de refuerzo educativo, es previsible que algunos alumnos o alumnas no alcancen los objetivos de la Educación Secundaria Obligatoria, por lo que agotadas las mismas, se hace necesaria una oferta formativa postobligatoria y profesionalizadora que haga posible la incorporación de estos y estas jóvenes al mundo del trabajo en un campo profesional determinado o su posterior retorno al sistema educativo.

De este modo, adquiere mayor significado el principio educativo de extensión del derecho a la educación y su ejercicio en condiciones crecientes de calidad, como instrumento para luchar contra la desigualdad, al ofrecer a estos/as jóvenes una respuesta específica que contribuya a potenciar su madurez, les ayude a lograr la autonomía necesaria para operar en su medio y les permita la adquisición de aprendizajes básicos.

La situación y características particulares de este grupo de jóvenes justifica la puesta en marcha de programas de garantía social, con el objeto de ofrecerles una formación básica y profesional concebida y ordenada para atender sus necesidades específicas, teniendo en cuenta el contexto social, cultural y productivo en que se desenvuelven.

En concreto, se considera que se debe poner especial énfasis en el desarrollo y consolidación de actitudes positivas de participación social y en recuperar la motivación para el aprendizaje, que conviene desarrollar los programas en espacios o ámbitos cercanos al mundo laboral, en colaboración con agentes sociales, y en conexión con planes de inserción laboral y, finalmente, que es necesario permitir una agrupación flexible de los contenidos de los distintos componentes formativos, con el objeto de responder a las características de cada grupo.

En nuestra Comunidad Autónoma el colectivo de jóvenes sin titulación académica ni profesional muestra un alto índice de desempleo, ya que carecen de formación suficiente que les permita conseguir una acreditación profesional como  trabajadores/as cualificados/as o bien acceder nuevamente al sistema educativo.

Horregatik, Lanbide Heziketako Euskal Planak Ekintza–planean dauzkan programen artean Hasierako Prestakuntza Arautugabea dago, titulaziorik gabeko gazteentzakoa. Programa horiek hurrengo helburu hauek dituzte:

1) Titulazio akademiko edo profesionalik lortu gabe hezkuntza–sistema laga duten gazteen prestakuntza eta kualifikazioa gehitzeko aukerak ugaltzea.

2) Titulazio gabeko gazteek lanbideratzeko dituzten aukerak hobetzea, norberaren gaitasunak eta ekoizpen–prozesuen zein lan–merkatuaren beharrizanak egokituz eta uztartuz.

3) Gazte horien oinarrizko prestakuntzaren maila behar den mailaraino igotzea, berriro hezkuntza–sisteman txertatzea izan dezaten.

Programa hauek 16 urtetik gorako gazteentzakoak izango dira, eta behin amaiturik, egindako lanbide–ikasketak egiaztatzen duen ziurtagiria emango zaie.

Bai Lanbide Heziketako Euskal Planean, bai Lanbide Heziketako Programa Nazional berrian, prestakuntzaren eta lanbideratzearen arteko loturaren garrantzia azpimarratzen da, lanbideratzea helburu duen edozein programatan. Horregatik, beharrezkoa da hiru administrazioen, hots, hezkuntza–, lan– eta toki–administrazioen elkarlana garatzea, zeren eta, lan–ingurunearekin uztartu ahala, eraginkortasuna handitzen baita, eta gizarte–eragileen parte-hartzea, sindikatu zein enpresari–elkargoena, erraztu ere egiten da.

Ildo horretatik, lanbide–ziurtagiriak arautzen dituen 797/1995 Errege Dekretuan, hirugarren Xedapen Gehigarrian, baimena ematen zaie Lan eta Gizarte Arazoetako Ministerioari eta Hezkuntza eta Kultura Ministerioari, korrespondentziak eta konbalidazioak egiteko, Lanbide Heziketa Arautuaren, Lanerako Heziketaren, eta Gizarte–bermeko Programen artean.

Dekretu honetan, beraz, esperientziak eta metodologia– zein antolamendu–berrikuntzak esparru batean bilbatzen dira, aipaturiko programen jasotzaileen beharrizanak egokiro betetzeari begira.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Aholku Batzorde Juridikoari entzunda, eta Jaurlaritza Kontseiluak 2001eko apirilaren 24an egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

Por ello, el Plan Vasco de Formación Profesional contempla entre los programas comprendidos en su Plan de Acción los relativos a la Formación Inicial No Reglada, dirigidos a jóvenes sin titulación. Estos programas tienen los siguientes objetivos:

1) Incrementar notablemente las oportunidades de adquirir formación y cualificación profesional de los y las jóvenes que abandonan o han abandonado el sistema educativo y no tienen una titulación académica o profesional.

2) Mejorar las posibilidades de inserción profesional de los y las jóvenes sin titulación, a través de una orientación y formación más ajustada a sus capacidades y a las necesidades de los procesos productivos y del mercado de trabajo.

3) Incrementar las posibilidades de reinserción educativa de estos y estas jóvenes elevando su formación básica hasta el nivel necesario.

Estos programas, dirigidos a jóvenes mayores de 16, posibilitarán la obtención, a la finalización de los mismos, de una certificación que acredite las competencias profesionales adquiridas.

Tanto el Plan Vasco de Formación Profesional como el nuevo Programa Nacional de Formación Profesional contemplan la vinculación de la formación a la inserción laboral como una constante en cualquier programa de carácter profesionalizador. Por ello, se hace imprescindible una intervención convergente de las Administraciones educativa, laboral y local, aumentando su operatividad en la medida que conectan con el entorno sociolaboral y favoreciendo una participación activa de los agentes sociales: organizaciones sindicales y empresariales.

En este sentido, el Real Decreto 797/1995, que regula los certificados de profesionalidad, en su disposición adicional tercera autoriza a los Ministerios de Trabajo y Asuntos Sociales y de Educación y Cultura para establecer conjuntamente las correspondencias y convalidaciones pertinentes entre los módulos profesionales de la Formación Profesional Reglada, la Formación Profesional Ocupacional y los Programas de Garantía Social.

Por tanto, este Decreto responde a la necesidad de establecer un marco que permita el desarrollo de todas aquellas experiencias, innovaciones metodológicas y organizativas que respondan adecuadamente a las finalidades y los/as destinatarios/as de estos programas.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, oída la Comisión Jurídica Asesora, previa deliberación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el 24 de abril de 2001,

XEDATU DUT:

## I. KAPITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Dekretu honen helburua gizarte–bermeko prestakuntza–ekintzen alderdi nagusiak arautzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko. Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 23. artikuluan ezarri ziren prestakuntza–ekintza horiek, honako xede hauek dituztela: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gainditzen ez duten ikasleei oinarrizko lanbide–heziketa ematea, eta horiek direla bide, lan–munduan sartzea edo aipaturiko legean arauturiko ikasketak egiteko moduan uztea.

*2. artikulua.–* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Dekretu honetan ezarritakoarekin bat, baimentzen dituen gizarte–bermeko prestakuntza–ekintzek Lanbide Hastapeneko Programak izango dute izena, modu generikoan.

*3. artikulua.–* Dekretu honetan arauturiko Lanbide Hastapeneko programek honako helburu hauek izango dituzte:

1.– Gazteen heldutasuna garatu eta finkatzea, kultura anitzeko gizarte demokratiko batean osoko pertsona gisa bizi daitezen.

2.– Oinarrizko prestakuntzak berezkoak dituen gaitasunetan sakontzea, ikasleei lan–mundura bideratzearren edo hezkuntza–sistemara itzultzea erraztearren, beti ere etengabeko prestakuntzaren ideia suspertuz eta sustatuz.

3.– Merkatuan eskatzen den lanbide–gaitasuna hartze aldera, behar diren trebetasunak garatzea, eta ohitura zein jarrera egokiak hartzea, lanpostuan segurtasunez aritzeko.

## II. KAPITULUA
## JASOTZAILEAK, IZEN–EMATEA ETA TALDEENTZAKO PRESTAKUNTZA

*4. artikulua.–* Lanbide Hastapeneko programak 16 eta 21 bitarteko gazteentzakoak dira. Adinak zenbatzeko erreferentzia programa hasten den urteko abenduaren 31 izango da. Jasotzaileek gainditu gabe eduki behar dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta, beraz, Bigarren Hezkuntzako Graduatu–titulua ere lortu gabe eduki.

21 urteko muga gainditzeko salbuespena barnetegi–tankerako zentroetan dauden gazteak izango dira; esate baterako, komunitate terapeutikoetan edo espetxeetan daudenak.

*5. artikulua.–* 1.– Programak ikasle–taldeei emango zaizkie. Talde horien gehienezko eta gutxienezko kopuruak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztuko ditu.

DISPONGO:

## CAPÍTULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* El presente Decreto tiene por objeto regular, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, los aspectos esenciales de las acciones formativas de garantía social establecidas en el artículo 23 de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo con la finalidad de posibilitar al alumnado que no alcance los objetivos de la Educación Secundaria Obligatoria una formación básica y profesional que le permita insertarse en la vida activa o proseguir estudios, en las diferentes enseñanzas reguladas en la mencionada Ley.

*Artículo 2.–* Las acciones formativas de garantía social que, de conformidad con lo dispuesto en el presente Decreto, autorice el Departamento de Educación, Universidades e Investigación se denominarán de forma genérica programas de Iniciación Profesional.

*Artículo 3.–* Los programas de Iniciación Profesional regulados por este Decreto se orientarán a la consecución de los siguientes objetivos:

1.– Desarrollar y consolidar la madurez personal de los y las jóvenes para el desarrollo pleno como persona en una sociedad pluricultural y democrática

2.– Profundizar en las capacidades propias de la formación básica con el objeto de facilitarles la incorporación al mundo laboral y propiciar la reinserción en el sistema educativo, fomentando una buena disposición hacia la formación permanente.

3.– Desarrollar la adquisición de las capacidades y destrezas suficientes para acreditar la competencia profesional demandada y potenciar la adquisición de los hábitos y actitudes precisas para desempeñar un puesto de trabajo en condiciones de seguridad.

## CAPÍTULO II
## DESTINATARIOS, INSCRIPCIÓN Y FORMACIÓN DE GRUPOS

*Artículo 4.–* Los programas de Iniciación Profesional estarán destinados a los y las jóvenes mayores de 16 años y menores de 21, a 31 de diciembre del año en que comiencen el programa, que no hayan alcanzado los objetivos de la Educación Secundaria Obligatoria y, por tanto, no han obtenido el título de Graduado en Educación Secundaria.

Solamente en caso de comunidades terapéuticas, centros penitenciarios o centros similares de internado se podrá superar la edad de 21 años.

*Artículo 5.–* 1.– Estos programas se desarrollarán en grupos de alumnos/as cuyos números máximo y mínimo serán determinados por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

2.– Beharrizan bereziak dituzten ikasleek berariazkoa ez den programa batean parte hartzen dutenean, kopurua taldearen ezaugarrietarako egokituko da; baina, edonola ere, beharrizan bereziak dituzten ikasleen kopuru mugatua sartuko da talde bakoitzean.

3.– Programa burutuko den ikastetxean edo erakundean emango dute izena ikasleek, zehazten diren epe eta baldintzetan.

4.– Talde bakoitzeko ikasleen hautaketa egin ondoren, ikastetxeak edo erakundeak ikasleen zerrenda aurkeztu behar du, non taldeak, adina, gaindituriko azken maila eta jatorriko ikastetxea zehaztuko diren; gero, zerrenda hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean onartuko da.

Onarpen hori ezinbestekoa da jarduerei hasiera emateko.

III. KAPITULUA
IRAUPENA ETA ANTOLAMENDUA

*6. artikulua.*– Lanbide Hastapeneko programak bi ikasturtetan zehar garatuko dira. Lehenengo ikasturtea 1000 bat ordukoa izango da. Bigarrena berriz honela antolatuko da: lehenengo ikasturtean egindako ikaskuntzak sakondu eta zabalduko dira aldi batean; beste aldi bat enpresetan praktiketan jarduteko izango da, eta, aurreko bi aldi horietako guztia hirugarren aldi batean borobildu ahal izango da, lanbide-heziketako erdi-mailako zikloetan sartzeko prestakuntzarekin.

*7. artikulua.*– Lanbide Hastapeneko programek prestakuntzako eduki-multzo hauek hartuko dituzte barne:

1.– Oinarrizko lanbide-teknikak: lanbide-eremu edo -perfil batean sartzeko lagungarri diren ezagutza teknikoak dira. Lanpostua behar bezala betetzeko gaitasuna lortzea dute helburu.

Prestakuntzako eduki-multzo hori modulutan egituratuko da; horrela, lortutako lanbide-gaitasunak errazago egiaztatuko dira eta eduki-multzo hori Lanerako Prestakuntzako moduluekin bat etortzea ahalbidetuko da, maiatzaren 19ko 797/1995 Errege Dekretuko hirugarren xedapen gehigarriak erabakitakoarekin bat.

2.– Oinarrizko Prestakuntza: Oinarrizko ikaskuntzak berreskuratzen eta sendotzen lagunduko dute, ikaskuntza horiek hau dena ahalbidetzen baitute: komunikazio-gaitasunaren garapena, kalkulurako gaitasuna eta problemak erabakitzekoa, komunikazioko eta informazioko teknologiak erabiltzeko trebetasuna, enpresek diharduten inguru ekonomikoa orohar ulertzea, erabakiak hartzeko eta taldean lan egiteko ahala, kalitate-gosea eta aldaketetara ohitzeko borondatea. Helburu hau izango du: eskura ditzatela ikasleek lanbide-

2.– Cuando participe alumnado con necesidades educativas especiales en un programa no específico, el número se adaptará a las condiciones del grupo, teniendo, en cualquier caso, un número limitado de alumnas y alumnos con estas necesidades.

3.– El centro educativo o entidad responsable de la impartición del programa realizará la inscripción del alumnado en los plazos y las condiciones que se determinen.

4.– Una vez realizado el proceso de selección del alumnado de cada grupo, el centro educativo o entidad responsable del programa deberá presentar el listado de alumnos/as inscritos, señalando el nombre del grupo al que pertenecen, la edad, el último nivel superado y el centro de procedencia, para la aprobación de dicho listado por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Esta aprobación es imprescindible para el inicio de las actividades.

CAPÍTULO III
DURACIÓN Y ORGANIZACIÓN

*Artículo 6.*– Los programas de Iniciación Profesional se desarrollarán a lo largo de dos cursos escolares. El primer curso tendrá una duración en torno a 1.000 horas de formación. En el segundo curso de Iniciación Profesional se organizará una fase de profundización y extensión de los aprendizajes realizados en el primer curso, otra fase de prácticas en empresa y podrá completarse con una última fase de preparación para la prueba de acceso a los ciclos formativos de grado medio de formación profesional.

*Artículo 7.*– Los programas de Iniciación Profesional incorporarán los siguientes bloques formativos:

1.– Técnicas Profesionales Básicas: Procurará conocimientos técnicos que inician en un ámbito o perfil profesional y tendrá por finalidad la adquisición de la competencia profesional necesaria para el desempeño de un puesto de trabajo.

Este bloque formativo se estructurará de forma modular para facilitar la acreditación de las competencias profesionales adquiridas y posibilitar la correspondencia con los módulos de Formación Profesional Ocupacional, de acuerdo con lo previsto en la disposición adicional tercera del Real Decreto 797/1995, de 19 de mayo.

2.– Formación Básica: Contribuirá a la recuperación y consolidación de los aprendizajes básicos que posibiliten desarrollar la capacidad de comunicación, de aptitud para el cálculo y la resolución de problemas, de utilizar las tecnologías de la comunicación y la información, la comprensión general del entorno económico en el que funcionan las empresas, la capacidad para la toma de decisiones y el trabajo en equipo, así como el interés por la calidad y la voluntad de adaptación al cambio. Tendrá por finalidad que el alumnado adquie-

kualifikazioa lortzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta oinarrizko gaitasunak edo, kasuak kasu, ikasten jarrai dezatela.

Eduki-multzo honek hiru osagai nagusi ditu:

– Gizarte-gaitasunak eta komunikaziokoak. Arlo honetan, komunikazioarekin zerikusiriko jokabideak, edukiak eta jarrerak landuko dira (ulermeneko irakurketak, ahozko eta idatzizko komunikazio egokia); halaber, gizartearen ezagutzarekin, lanbide-orientazioarekin eta tutoretzarekin zerikusirikoak.

– Tresna zientifikoak: Zenbaki- eta espazio- adierazpenekin eta natur zientziekin zerikusiriko ezagutzak sakonduko dira eduki-multzo honen bidez.

– Informazioko eta komunikazioko teknologiak. Teknologia hauek erabiltzeko oinarrizko trebetasunak erakutsiko zaizkie ikasleei.

3.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabakiko du Lanbide Hastapeneko programa hauei dagokien curriculuma.

*8. artikulua.–* Ikasleen hezkuntza-beharrek eta beren prestakuntzako lanbide-perfilak erabakiko dute nola antolatu aurreko artikuluan jasotako prestakuntzako eduki-multzoak. Tutoretza eta lanbide-orientazioa beti eta nonahi egongo dira prestakuntza osoan.

Tutoretza eta orientazioa hezkuntzak berezko ditu eta gazteen prestakuntzaro guztian etengabe garatuko dira. Tutoretza lagun bakoitzari banaka eta taldeka eskainiko zaio. Tutoretzaren helburuek eta edukiek honako hauek erraztu nahi dituzte: ikasle bakoitzaren garapen pertsonala, gizartean sartzea eta gizarteko egitea, gizarte-gaitasunak iristea eta kasuan kasuko lanbide-eremuko lan-baldintza eta harremanen legezko esparrura ohitzea.

*9. artikulua.–* 1.– Ikasleak astean 30 irakastordu izango ditu eta honela banatuko dira:

– Oinarrizko lanbide-tekniketarako, 14-17 ordu astean.

– Oinarrizko prestakuntzarako, 13-16 ordu.

IV. KAPITULUA
PROGRAMEN BALDINTZAK ETA GARAPENA

*10. artikulua.–* 1.– Lanbide Hastapeneko programak lankidetzan eman ahal izango dira toki-erakundeekin, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuekin edo ikastetxe arruntekin, publiko zein pribatuekin, batez ere lanbide-heziketan diharduten edo jardun dutenekin, horietan horretarako behar den tresneria baitute.

ra o afiance los conocimientos y capacidades básicas que se consideren imprescindibles para conseguir la cualificación profesional o, en su caso, proseguir estudios.

Este bloque constará de tres grandes componentes:

– Habilidades sociales y para la comunicación: En el que se trabajarán procedimientos, contenidos y actitudes relacionados con la comunicación (lectura comprensiva, comunicación efectiva oral y escrita), con el conocimiento social y la orientación profesional y la tutoría.

– Instrumentos científicos: En él se profundizará en los conocimientos relacionados con la expresión numérica y espacial y las ciencias de la naturaleza.

– Tecnologías de la información y la comunicación. En el que se dotará al alumnado de una capacitación básica en el manejo de estas tecnologías.

3.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación determinará el currículo correspondiente a estos programas de Iniciación Profesional.

*Artículo 8.–* Los bloques formativos incluidos en el artículo anterior se organizarán en función de las necesidades educativas del alumnado y del perfil profesional en el que se estén formando. En cualquier caso, la tutoría y la orientación profesional impregnarán toda la acción formativa.

La acción tutorial y de orientación constituye un elemento inherente a la actividad educativa y se desarrollará permanentemente a lo largo de todo el proceso formativo de los y las jóvenes. Dicha acción incluirá actividades tutoriales, tanto individuales como grupales. Los objetivos y contenidos de esta acción tenderán a facilitar el desarrollo personal, la integración e implicación social, la adquisición de habilidades sociales y la familiarización con el marco legal de condiciones de trabajo y de relaciones laborales del ámbito profesional de que se trate.

*Artículo 9.–* 1.– El número total de horas semanales lectivas del alumnado será de 30 horas, distribuidas de la siguiente forma:

– Al bloque de Técnicas Profesionales Básicas se dedicará entre 14 y 17 horas semanales,

– A la formación básica se dedicarán entre 13 y 16 horas.

CAPÍTULO IV
CONDICIONES Y DESARROLLO DE LOS PROGRAMAS

*Artículo 10.–* 1.– Los programas de Iniciación Profesional podrán impartirse en colaboración con entidades locales, entidades privadas sin ánimo de lucro o en centros ordinarios, públicos o privados, preferentemente en aquellos centros que impartan o hayan impartido formación profesional y, por tanto, tengan equipamiento adecuado para ello.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabakiko du zein baldintza jarri Lanbide Hastapenean ezar daitezkeen programak baimentzeko.

3.– Hezkuntzako behar bereziak dituzten gazteak ezarritako edozein motatan sartu ahal izango dira, baina horrelako ikasleak eskolatzeko indarrean dauden arauak beteta. Hala berean, Lanbide Hastapeneko programa bereziak jarri ahal izango dira hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleentzat.

*11. artikulua.*– 1.– Gazteen prestakuntzaren eta ebaluazioaren arduradun, programa garatzeko aldian, honako irakasle-taldea izango da:

– Lanbide Heziketako irakasle bat edo kasuan kasuko arloan aditua dela erakutsi duen lagun bat. Oinarrizko lanbide-teknikak emango ditu.

– Bi irakasle diplomatu edo unibertsitateko lizentziatu Oinarrizko Prestakuntza emateko; bata komunikazio-arloko espezialista eta bestea zientzia-teknologia arlokoa. Ikastetxeak publikoak badira, irakasle horiek Bigarren Irakaskuntzako irakasleen edo maisuen kidegokoak izango dira; azken horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza lehen ziklora atxikiak.

2.– Hiru irakasle horiek koordinatuta lan egingo dute eta hiruren prestakuntza-jarduera elkarren artean osatu, Lanbide Hastapeneko programen helburuak lortzearren.

3.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabakiko du zer eskatu bereziki programako irakasleek egiaztatu beharreko titulazioari eta lanbideko esperientziari dagokionean, ikasle bakoitzaren hezkuntza-beharrak modurik egokienean bete daitezen eta programaren helburuak lortuko direla berma dadin.

4.– Programa horiek irakasten esperientziarik gabeko irakasleek lehentasuna izango dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak programa honetarako antolatutako prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko.

*12. artikulua.*– Programa hauek garatuko diren instalazioak egokiak izan beharko dute, jarritako helburuak kalitatez eta seguru lor daitezen.

Horrela, bada, programaren ardura duen erakundeak ikasle-talde bakoitzarentzat prest duen instalazioa eta tresneria aurkeztuko dizkio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, onar dezan eta programa emateko baimena eman dezan.

2.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación determinará las condiciones para la autorización de los diferentes programas de Iniciación Profesional que puedan establecerse.

3.– Los y las jóvenes con necesidades educativas especiales podrán integrarse en cualquiera de las modalidades que puedan establecerse observando en cualquier caso la normativa vigente sobre escolarización de este alumnado. Asimismo, podrán establecerse programas específicos de Iniciación Profesional para grupos de alumnos y alumnas con necesidades educativas especiales.

*Artículo 11.*– 1.– El equipo docente responsable de la formación y evaluación de los y las jóvenes a lo largo del programa estará constituido por:

– Un/a profesor/a técnico de Formación Profesional o persona especialista acreditada en el sector correspondiente, que impartirá el bloque de Técnicas Profesionales Básicas.

– Dos profesores/as diplomados/a o licenciados/a universitarios/a que impartirán el bloque de Formación Básica, uno/a especialista en el ámbito de comunicación y el otro/a especialista en el ámbito científico-tecnológico. En el caso de centros públicos, estos profesores/as pertenecerán al cuerpo de Profesores de Enseñanza Secundaria o al cuerpo de Maestros, estos últimos además adscritos al primer ciclo de la Educación Secundaria Obligatoria.

2.– Estos/as tres formadores/as trabajarán de forma coordinada complementado su acción formativa para conseguir las finalidades de los programas de Iniciación Profesional.

3.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación determinará los requisitos específicos en cuanto a titulación y experiencia profesional que deberá acreditar el profesorado del programa, de manera que se aseguren las condiciones que mejor respondan a las necesidades educativas del alumnado en cada caso y aseguren la consecución de los objetivos del programa.

4.– El profesorado que no tenga experiencia en la impartición de estos programas tendrá prioridad para participar en los cursos de formación organizados por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación destinados a este programa.

*Artículo 12.*– Las instalaciones donde se desarrollen estos programas deberán ser las adecuadas para que en ellas puedan alcanzarse los objetivos previstos en condiciones de calidad y seguridad.

En este sentido, el organismo responsable del desarrollo del programa presentará al Departamento de Educación, Universidades e Investigación las instalaciones y equipamientos con los que cuenta para cada grupo de alumnos/as, para su aprobación y posterior autorización de la impartición del programa.

Instalazio hauetako bakoitzari bere baldintzak jarriko zaizkio, zein lanbide-perfiletarako diren begiratuta.

*13. artikulua.*– 1.– Parte-hartzeko modua argi adieraziko duen gizarte-hezkuntzako proiektua egingo dute Lanbide Hastapeneko programen garapenaren ardura duten erakundeek. Programak helburuei begira garatuko direla bermatuko da.

2.– Gizarte-hezkuntzako proiektu horrek hiru alderdi hauek izango ditu kontuan:

a) Programa ingurumari sozioekonomikoan arteztuko duten osagai orokorrak, programaren helburuak, proposatutako lanbide-perfilak eta erantzunaren egitura.

b) Emango diren lanbide-perfil bakoitzari erantsitako prestakuntza-curriculuma.

c) Antolamendu eta funtzionamenduko osagaiak.

*14. artikulua.*– 1.– Programen garapenaren ardura duten erakundeek egingo dute garapen horren programazioa eta prestakuntzako eduki-multzo bakoitzaren irakas-programazioak.

2.– Programazio orokorrak honako hauek hartuko ditu barne: irakasleen ezaugarrien, jatorriaren eta ikasketa-mailaren estatistika laburra, prestakuntzako eduki-multzo bakoitzerako eta garatzen diren ekintzetarako izendatutako orduak, horiek aurrera eramateko irizpide pedagogikoak, irakasleen dedikazio-orduak, ikasleen talde bakoitzaren orduak, espazioaren eta eskuartekoen antolamendua.

3.– Prestakuntzako eduki-multzo bakoitzaren irakas-programazioek honakook jasoko dituzte gutxienez: helburuak, edukiak -kontzeptuzko, jarrerako eta prozedurakoak-, irakas-ikaskuntzako ekintzak eta ebaluazioko irizpideak.

4.– Irakas-programazioek ikasleen eta taldearen ingurumari soziolaboralaren ezaugarrietara egokituko dira eta prestakuntzako eduki-multzoen erreferentziatzat Oinarrizko Lanbide Teknikak hartuta artikulatuko dira. Orobat, behar den bestean egokituko dira curriculumak gazte bakoitzaren beharretara.

*15. artikulua.*– 1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egingo du programaren garapenaren jarraipena eta helburuen lorpen-mailaren ebaluazioa. Horretarako, garapenaren ardura duten erakundeek, eskatzen zaizkien datu eta dokumentazio guztiak aurkeztu beharko dizkiote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

2.– Lanbide Hastapeneko programen garapenaren ardura duten erakundeek, ikasturte bakoitza amaitzean, azken txostena egingo dute; txosten horretan, autoebaluazioa eta burututako hezkuntza-ekintzaren emaitzak jasoko dira.

Las condiciones exigibles a estas instalaciones serán variables en función del perfil profesional para el que estén destinadas.

*Artículo 13.*– 1.– Los organismos responsables del desarrollo de los programas de Iniciación Profesional elaborarán un proyecto socioeducativo en el que harán explícito el modo de intervención de forma que se asegure que los programas se desarrollarán conforme a sus finalidades.

2.– El proyecto socioeducativo contemplará los siguientes tres aspectos:

a) Elementos generales que sitúen el enfoque del programa en el contexto socioeconómico, las finalidades del programa, los perfiles profesionales que se proponen y la estructura de la respuesta.

b) El currículo de la formación asociada a cada uno de los perfiles profesionales que se vayan a impartir

c) Elementos de organización y funcionamiento.

*Artículo 14.*– 1.– Los organismos responsables del desarrollo de los programas elaborarán la programación general del mismo, así como las programaciones didácticas de cada uno de los bloques formativos.

2.– La programación general incluirá un breve resumen estadístico de las características, procedencia del alumnado y nivel académico, el horario asignado a cada uno de los bloque formativos y a las otras actividades que se desarrollen, así como los criterios pedagógicos para su elaboración, horario de dedicación del profesorado, horario de cada grupo de alumnos/as, la organización de los espacios y los recursos disponibles.

3.– Las programaciones didácticas de cada bloque formativo contendrán al menos: objetivos, contenidos conceptuales, actitudinales y procedimentales, actividades de enseñanza-aprendizaje y criterios de evaluación.

4.– Las programaciones didácticas se adaptarán a las características de los y las jóvenes y al contexto sociolaboral del grupo y estarán articuladas tomando como referencia y eje vertebrador de los bloques formativos las Técnicas Profesionales Básicas. Asimismo, se realizarán las adaptaciones curriculares necesarias para acomodar el currículo a las necesidades individuales de cada joven.

*Artículo 15.*– 1.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación realizará el seguimiento del desarrollo del programa y la evaluación del grado de consecución de los objetivos del mismo. A estos efectos, los organismos responsables de su desarrollo aportarán al Departamento de Educación, Universidades e Investigación cuantos datos y documentación les sean requeridos.

2.– Los organismos responsables del desarrollo de los programas de Iniciación Profesional, al término de cada curso escolar, realizarán una Memoria final en la que recogerán una autoevaluación y los resultados de la actividad educativa realizada.

3.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak programen jarraipena, kontrola eta kanpoko ebaluazioa egingo ditu.

V. KAPITULUA
LANBIDE PERFILAK ETA ZIURTAPENAK

*16. artikulua.–* Lanbide Hastapeneko programetan emango diren lanbide-perfilak modulu-egiturako formazio elkartu bat izango dute lanbide-gaitasunaren egiaztapena erraztearren, eta Lanerako Prestakuntzako moduluekin bat etortzea ahalbideratzearren, lanbide-ziurtagiriak arautzen dituen 797/1995 Errege Dekretuko hirugarren xedapen gehigarrian agintzen denez.

*17. artikulua.–* 1.– Lanbide Hastapeneko ikasle guztiek, programa amaitutakoan, ezarrita dagoenez, lortu duten lanbide-gaitasuna egiaztatzeko ziurtagiria jasoko dute.

2.– Ziurtagiri hori kontuan izango da Lanbide Heziketa erdi-mailako prestakuntza-zikloetara sartzeko probetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proba horietarako deialdian erabakitako baldintzetan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 1998ko uztailaren 30ean emandako Aginduak arautu-tako eginkizunetako ikasgeletako ikasleak Lanbide-hastapeneko ikasletzat hartuko dira ziurtapen eta enpresetako praktiketarako; hala ere, bete egin behar da hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko erabakia.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari baimena ematen zaio dekretu hau ezartzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

*Bigarrena.–* Dekretu hau indarrean izango da EHAAn argitaratu eta hurrengo egunaz gero.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko apirilaren 24an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

3.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación realizará un seguimiento, control y una evaluación externa de los programas.

CAPÍTULO V
PERFILES PROFESIONALES Y CERTIFICACIÓN

*Artículo 16.–* Los perfiles profesionales que se impartan en los programas de Iniciación Profesional contarán con una formación asociada de estructura modular, para facilitar la acreditación de la competencia profesional y posibilitar la correspondencia con los módulos de Formación Profesional Ocupacional, de acuerdo con lo establecido en el Real Decreto 797/1995, que regula los certificados de profesionalidad, en su disposición adicional tercera.

*Artículo 17.–* 1.– Todos los alumnos y alumnas de Iniciación Profesional recibirán al finalizar el programa una certificación que, acorde con lo establecido, acredite la competencia profesional adquirida.

2.– Esta certificación será tenida en cuenta en las pruebas de acceso a los ciclos formativos de grado medio de Formación Profesional, en las condiciones que determine el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en la convocatoria de dichas pruebas.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El alumnado de las Aulas de Aprendizaje de Tareas reguladas por la Orden de 30 de julio de 1998, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, será considerado a los efectos de certificación y de prácticas en empresa como alumnado de Iniciación Profesional, sin perjuicio de lo establecido para la escolarización del alumnado con necesidades educativas especiales.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se autoriza al Consejero del Departamento de Educación, Universidades e Investigación a dictar las disposiciones necesarias para la aplicación y desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de abril de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.